

«Musika gezurra da»

Xabi bezalako batek aurkitu zuen itsasoa karakola baten barruan.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Zuk non ikusten dituzu soinu-artearen eta musikaren arteko mugak?

Musika soinu antolatua dela esan daiteke. Nahiko definizio literala iruditzen zait. Baina entzumenaren “ikuspegitik” dena izan daiteke soinu antolatua. Gero eta zailagoa da muga hori non dagoen jakitea, atentzio kontua da, soinuari nondik begiratu nahi diozun: musikak tradizionalki izan dituen muga horien barrenean ala modu zabalagoan. Soinu gertakizun baten aitzinean elementu asko daude, eta musika esperimentalean saiakera berezia egiten da elementu guztiei sakonki erreparatzeko. Soinuak berez duen ezaugarri ederrenetakoa mugarik behar ez izatea da. Irudiak markoa behar du, soinuak ez. Historikoki beti saiatu izan dira soinuari markoa jartzen, bai baitzekiten soinuak gaitasun handiak dituela pertsonak kontrolatzeko eta manipulatzeko. Musikaria manipulatzailerak da naturaz. Soinu-artearen marko eza errebendikatzen da.

Badugu entzuten dugunaren kontzientziarik?

Zerikusi handia du markoaren kontuarekin. *Musikari gorrotoa* liburuan Pascal Quignar-ek dio belarriek ez dutela betazalik. Ezin diogu entzuteari utzi. Baina egia da entzumenaren kultura galtzen ari garela. Aurreko belaunaldiak alde-ratuz gero, galdu egin dugu entzumenaren bidez gauza pila bat deskodifikatzeko gaitasuna. Ahazten ari zaigu entzuten. Horretan hezkuntzak zerikusi handia du, ikusmenean oinarritutako hezkuntza jasotzen baitugu. Erranera zaharretan nabaria da. Gaztelerazko *si no lo veo no lo creo*. Egia da neuk ikusi dudalako. Ematen du ikusmena dela errealitatea jasotzen duena, benetan baieztatzen duena gauza bat baden ala ez den. Badirudi entzumenak ez dela hain zentzumen fidagarria. Eta oraindik ere kontzertuak *ikustera* joaten gara... Hizkuntzan barneratu diren moldeak dira, eta asko esaten dute gure entzuteko moduari buruz.

Gure aitona-amonon garaitik hona zertan aldatu da entzuteko modua?

Soinu-ingurunea bera ere aldatu egin da. Behar-bada, beste sakonera bat zuen lehengo entzute-

ko moduak; gaur egun motorren eta makinaren zaratak masa uniformeak sortzen du sakonago entzuten uzten ez diguna. Soinu norgehiagoka moduko bat dago, XX. mendeko ezaugarria da lehia hori; eta baditu ondorio sozialak: ez gintuzke harritu behar arazo politikoak konpontzeko daukagun zailtasunak. Ez badakigu entzuten ez dakigu ulertzen. Nork ozenago hitz egin, hori da gure kultura. Ekialdeko Timorren ohartu ginen han sekulako garrantzia duela ondo ahoskatzeak, gauzak modu ordenatuan esateak. Hemen behin zer izan ginen ohartzeko balio du.

Begiak irabazi dio belarriari...

Badirudi garrantzitsuagoa dela irudi berri bat aurkitzea soinu berri bat aurkitzea baino. Egunkari batek bi orritako argazkia argitaratzeak kurioa delako bakarrik, baina oso zaila da iratiak, besterik gabe kurioa delako soinu berri bati lekua egitea. Irratian soinua mespretxatu egiten da. Musikaren erabilpen abusiboa egiten da, gero eta gutxiago dira musikariek gabeko espazioak. Lehen erran dugun lehia horretara bildu dira: gero eta ozenago hitz egiten dute, oihuka, barreka, elkar zapalduz... Kotxean lanera bidean zoazela, badirudi irati esatariak kotxearen zaratarik gailendu nahi zaizkiola. Alde horretatik, bi urte hauetan Euskadi Irratiko *Arratsaldekoa* saioan egin ditugun esperimentuak ikaragarri aberasgarriak izan dira; adibidez, irratan isiltasunarekin jolastearena. Irratiek muga bat dute: soinurik gabe segundo jakin batzuk igaroz gero

Nortasun agiria

Xabi Erkizia Lesakan jaio zen 1975ean. Irrati-telebista ikasketak egin zituen Bilbon. Ordurako Xorroxin irratan musikari buruzko saio bat egiten zuen eta Bilboko Irala irratan eta idatzizko zenbait komunikabidetan zeregin berean jarraitu zuen. Ikasketak amaituta, Ttipi-ttapa telebistan hasi zen muntaia lanetan. 2002an musikari emanda bizitzea erabaki zuen. Orduetik, musika elektronikoa ezagutu du, nazioarteko musikariekin harremanak estutu ditu, Ertz jaialdiaren sortzaileetako bat da, Artelekuko Audiolab soinu laborategiko zuzendaria, UnCommon Sounds proiektuaren bultzatzaileetako bat, Euskal Herriko soinu-mapa osatzen ari da, eta soinu berrien bilatzaile nekaezina da. Musikaren mugak hautsi eta soinura iritsi zen. Orain soinuaren mugak zabaltzen ari da.

• PERSONAIA •
Xabi Erkizia



● Xabi Erkizia

mekanismo batek egiten du salto, eta zer edo zer emititzen hasten dira, isiltasuna akats gisa ulertzen delako. Halako esperimenduak egin izan ditugu: ea zenbat denbora egon gintezkeen isilik, berez, zer edo zer entzuteko diseinatura dagoen leku batean.

Entzutearen kontzientzia maila handitu dezakegu?

Joan zen urtean aspalditik amesten nuen zer-bait egiteko zortea izan nuen: ganbera nekoi-ko batean sartu nintzen, oihartzunik gabeko ganbera batean. Hor sartuta zuk zenbat zarata egiten duzun entzuten duzu edo, hobeto esanda, zuk zenbat zarata duzun. Ze guk ezin diogu bihotzari gelditzeko eta zaratarik ez egiteko eskatu. Ederra izango litza-teke halako ariketak jendeari eskaini ahal izatea. Edo isiltasun gelak jartzea hirietan. Hiri zaratatsuen erdian isiltasun gelak, burbuila moduko batzuk, mugimendu hori guztia soinu-rik gabe ikusi ahal izateko, eta zarata hori guztia entzun gabe imajinatzeke. Horrelako ariketek gure ingurunearen kontzientzia har-tzen laguntzen digute.

Zergatik gustatzen zaizkigu soinu batzuk eta beste batzuk desatseginak egiten zaizkigu?

Zientifikoki aztertuko bagenu, konturatuko ginateke frekuentzia bakoitzak eragin desberdina duela gure gorputzean. Atal diferenteak bibrazten dizkigute. Bolumenaren arabera ere aldatu egiten da hori, baina soinu guztiek bibrazten digute zer edo zer, gorputzeko atalen bat. Kultura zahar anitzetan erabili izan da jakintza hori. Indiarrek esaterako, eguneko momentu bakoitzean raga jakin bat, bokal jakin bat eta nota jakin bat kantatzen dute. Nota horrek gorputzaren zati jakin bat bibrazten du: goizeko ragak aktibatzeke balio du eta gauekoak, lasaitzeke. Gaur egun bizi dugun soinu espektroa ikaragarri zabala da, eta gero eta zailagoa da frekuentzia horiek banatzea eta denek batera gudan zein eragin duten aztertzea. Orain dela gutxi Venezian izan ginenean, kalean soinu zoli desatsegin bat entzun genuen. Sei lagun ginen, eta erdiek entzuten genuen eta beste erdiek ez. Bila hasi ginen soinua nondik etorriko, eta sinagoga baten ate gainean bafle txiki-txiki bat topatu genuen soinu desatsegin hori erreproduzitzen zuena. Halako instrumentuak jendea uxatzeko erabiltzen dira, soinu horrek ezinegona eta buruko mina sortzen baitu. Hor daude militarrek erabiltzen dituzten arma sonikoak ere. Israeleko armadak, esaterako, sona handia du arma sonikoak erabiltzeagatik. Ikerketa handiak egin dira, baina ez dira publikoak.

Ez gintuzke harritu behar arazo politikoak konpontzeko daukagun zailtasunak. Ez badakigu entzuten ez dakigu ulertzen



Soinua hautemateko modua zenbateraino da kulturala?

Zaila da jakitea zer den entzumen kulturala eta zer entzumen fisikoa. Soinuak markorik ez duenez forma desberdinak hartzen ditu, eta hori da musikak duen kontraerran handienetakoa. Hori ez onartzea. Pentsatzea musikak forma jakin bat duela eta hori dela forma bakarra; kontuan hartu gabe espazioak, soinu ekipoak eta abarrek nolako eragina izan dezaketen musika hori ulertzeko moduan, entzuteko moduan. Akatsa da musika gauza itxia dela pentsatzea. Soinua materia bezala ikaragarria da, ez duelako egia bat bilatzen, eta hori da musikak egin duen akatsik handiena: egia bilatu nahi izatea, eta azkenean egia bihurtzea. Baina musika ez da egia, musika gezurra da.

Leku bateko soinu-unibertsoak badu eraginik leku horretako biztanleen nortasunean?

Baietz uste dut, ez dela gauza bera herrian ala hirian bizitzea. Nik ikaragarri sufritzen dut

hirietan egonaldi luzeak eginez gero. Bizpahiru hilabete igaro nituen Buenos Airesen bizitzen, ez nuen lanik, eta pentsatu nuen “hau da nire aukera: musika egiten pasako dut denbora”, eta ez nintzen kapaz izan minutu bakar bat ere horretan emateko. Hiru hilabeteen ez zen modurik izan: horrenbesteko zarata zegoen! Gauean zarata pixka bat isiltzen zenean esaten nuen “oraintxe da momentua”, baina belarriak nekatuegi izaten nituen.

Soinu unibertsoak pertsonon bizi-erritmoa bera ere alda dezake?

Kontua da erreprodukzio sistemak sortu direnetik norberak bere soinu-unibertso propioa sor dezakeela: zu joan zaitezke mendirik urrunenera edo basamorturik isilenera, baina piztu mp3a eta akabo! Mundu paraleloak sortzen ditugu, eta horrek entzumena bera ere ikaragarri aldatzen du.

Zugan zer garapen izan du soinuarekiko duzun harremanak?

Badago faktore bat asko interesatzen zaidana eta neurtezina dena: zer puntutara arte gara entzundako soinuak gogoratzeko gai? Ikaragarri zaila egiten zaigu memorian atzera egin eta soinuak huts-hutsean oroitzea. Gure entzumena aldatuz doa eta gehien entzuten dugun momentua jaiotzen garen momentua da. Mediki batzuek diote hori dela bizitza osoan sufritzen dugun traumarik handienetakoa. Amaren sabelean dena grabe eta goxo entzutetik, pafff!, soinu-unibertso oso bat irekitzen zaigu, ikaragarri gogorra seguru aski, eta horrek ondorioak izaten ditu etorkizuneko gure entzuteko gaitasunean. Jaiotzeko unetik entzumena galduz joaten gara. Lehen aipatu dizudan Veneziako soinu desatsegin horren kasuan... Halako instrumentuak, normalean, 18 urtetik beherako jendea uxatzeko erabiltzen dira, suposatzen delako hortik gorakoak ez direla soinu hori entzuteko gai.

Gazte zaude, beraz!

Entrenamendu kontua da. Gogoan dut 90eko hamarkadan Leonard Gunter izeneko soinu-artista baten pieza bat entzun nuela. Gunterren musika ikaragarri isila da. Bilduma batean zegoen haren kanta bat, eta hasieran pentsatu nuen txantxa zela, ez baitzen ezer entzuten, baina bat-batean hurbildu eta arretaz entzunez, ikaragarri unibertso aberatsa topatu nuen, isiltasunaren mugetan zegoena. Eta konturatu nintzen horrek zein jarrera diferentea eskatzen zidan. Alde batetik, zeinen exijentea zen entzuteko momentuan, baina, beste alde batetik, nolako plazera ematen zuen ia entzunezina zen zerbait entzuteak. Musika ulertzeko modua aldatu zidan.



AMAGOIA i ETXEKAR

Dendaldegi 7 • URNIETA (Gipuzkoa)

La Bretxa Merkatal Gunea

1. solairua

DONOSTIA (Gipuzkoa)

www.amagoialetxekar.com

Tel. 943 336170 • 677 202122



● Xabi Erkizia

Musikatik hurbildu zinen soinura, baina zu ere eskusoinua joaz hasi zinen.

Bai, esku-soinuarekin hasi nintzen amaren kapritxo. Hamasei urtera arte mutil txikia nintzen eta tamainagatik bakarrik gorroto nuen esku-soinua! Bizilaguna txistularia nuen, Santiago Irigoien; egia esan, bizilaguna baino gehiago izan zen niretzat, gurasoak lanean zeudenetan haienean geratzen baikin. Aitaxi-amaxi modukoak izan ziren Santiago eta Margarita. Santiagok ikusi zuenean ez nuela esku-soinua gehiegi maite, eta berak atabalari bat behar zuenez, esan zidan “ba, atabala ikasiko duzu”. Eta gauza oso kuriosoa gertatu zen orduan, gerora baloratzen ikasi dudana. Uste dut nire ibilbidean eragin handia izan zuela momentu hark. Santiagok ez zekien atabala jotzen. Baina lasai ederrean erran zidan: “Nik ez dakit atabala jotzen, baina erakutsiko dizut”. Adin horretako mutiko batentzat izugarritzko disparte da hori, nola erakutsiko zidan jotzen, jotzen ez zekien batek? Santiagok ariketa teknikoak ematen zizkidan hasieran, baina une bat iritsi zen esan zidana “nik hemendik aitzinera ez dakit gehiago. Hemendik aitzinera zeuk topatu behar duzu”. Eta orduan metaforak erabiltzen hasi zen. Esaten zidan: “Egin duzun ariketa hori urrunxeago eraman behar duzu, eta trumoi bezalako soinua egin behar duzu”. Eta, pentsa, adin horretan dena eginda ematea nahi duzu, eta izugarritzko putakeria da norbaitek trumoi bat egin dezazun eskatzea. Denborarekin konturatu naiz musika ulertzeko beste modu hauek badutela zerikusia metafora haiekin. Gero txaranga hasi nintzen atabala jotzen, eta txaranga espazioa deskubritzeko modua izan zen niretzat. Kale batean sartu eta buuuuahhh, soinuak ikaragarritzko dimentsioa hartzen zuen, handitu egiten zen ez dakit zenbat metro; eta bat-batean kalea bukatu, plaza batera iritsi eta, plofff, soinua aldatu egiten zen. Espazioaz jabetzen zaren momentutik dena aldatzen da, publikoarekiko harremana ere bai, hasten baitzara pentsatzen kontua ez dela zuk nola entzuten duzun, haiek nola entzungo duten baizik.

Zer soinu du isiltasunak?

Isiltasuna ez da existitzen, ganbera nekoikoak argi erakusten du. 50eko hamarkadan John Cage oihartzunik gabeko gela batean sartu zen, isiltasuna existitzen ote zen ala ez jakiteko, eta konturatu zen ezetz. Ni ganbera nekoikoan sartu nintzenean, hasieran ez zen ezer

OFF THE RECORD

Elkarriketako soinu-unibertsoa

Nire amasa, Xabiren amasa, urruneko oiha, arroparen hotsa, urruneko zaunkak, gertuko zaunkak, giltza hotsa, haizeak arrastaka daraman patata zorroa, hostoak haizetan, ahotsak, trafikoa, txistua irenstearen egin dudan hotsa, argazki kamara *klik*, su-piztekoa *klak*, aulkia-
ren hankak *klik-klak*, nire paperak, boligrafoaren hotsa paperean idaztean, zakur baten pausoak, sirena-hotsa, trafikoaren zurrumurrua, auto bat arrankatzen, Xabiren hatzak mahaia kolpatzen, haurren barreak, bizikleta baten katea, txoriak, kremailera bat ixten, Dani, Xabi eta hiruok gailetak mastekatzeko, edalontzia erori da.

gertatzen. Baina bat-batean bihotza entzuten hasi nintzen; eta gero betazalen soinua, halako froooooop bat, eta esaten diozu zeure buruari, bizi osoan nirekin izan dudan soinua da eta ez naiz behin ere konturatu. Artelekun “itzaltzeko kontzertu” bat egin genuen behin Aritz Mendizabalekin. Jendea ilunpetan sartu genuen eta makina pila bat jarri genituen martxan, ordenagailuak-eta, denak martxan, soinuak egin gabe, beno, soinuak erreproduzitu gabe baina martxan... Kontzertuaren oinarria makinak itzaltzen joatea zen, eta ohartzen zinen isiltasuna gero eta sakonagoa zela. Isiltasunean zulo bat egitea bezala.

Zenbaiteino entzuten ditugu behar ditugun soinuak bakarrik?

Buenos Airesen izugarritzko molestia sentitzen nuen autobusen frenoekin. Taxi batean leihoa irekita, entzun nuen frenoaren soinu hori eta erran nion taxilariari: “Joder! Soinu hori!”. Eta erran zidan: “Ze soinu?”. Berak ez zion garrantzirik ematen eta ez zuen entzuten. Izan ere, zuen lanpostuarekin garrantzirik emango balio erotu egingo litzake. Beraz, batetik, gure entzumena ingurunera moldatzen da, baina zein puntutara arte? Ze, soinuak dira gugana iristen direnak. Iru-dietara geu joaten garen bezala soinuak gugana etortzen dira. Beraz, nork moldatzen du nor?

Soinuek ze leku daukate gure memoria kolektiboan?



Zenbait soinu kolektiboki onartzen ditugu. Bi adibide jarriko ditut: herrietan oraindik mantentzen da ezkilen kodifikazioa. Ezkila bakoitzak bere soinua du baina gu ez gara gai hori deskodifikatzeko, agian jakingo dugu ezkila horiek hildako batenak direla, baina ez dakigu hildakoa haurra, gizonezkoa, emakumezkoa edo zer den. Lehen bazekiten, baina hizkuntza hori galdu egin da. Hirietan bizi denak ere jakinen du suhiltzaileen, polizien eta anbulantzien sirenak bereizten. Memoria kolektiboa egoerak eta beharrek moldatzen dute. Nik pentsatu nahi dut, modu erromantikoan, badi-rela soinu batzuk, desberdinak izanagatik kolektiboak direnak: amaren ahotsa, adibidez. Ama guztien ahotsa ez da berdina, baina bada memoria kolektibo bat, denoi sentiarazten baitigu zerbait.

Egile eskubideak hainbeste aipatzen diren garaiotan, zuk kopia aldarrikatzen duzu: diozu ezinezkoa dela ez kopiatzea.

Hausnarketa hori ez bagenu soinuaren ikuspegitik egingo, puskaz problematikoagoa litzateke. Baina nik argi dut soinua ez dela inorena, ezin dela inorena izan. Musika egiten dugunean berdina. Zuk gitarra batekin akorde bat egin dezakezu, baina egiten duzun momentuan akorde hori ez da zurea, bertzerena da, edo hobeki erranda, ez da inorena: da, eta kito. Ze bakoitzak modu jakin batean jasotzen du, garrantzia ematen dio ala ez, espazioak moldatu egiten du soinua... Beharbada espazioarena da gehiago zurea baino... Horri mugak jartzeak eta esateak "soinu hau, berdina da non eta nola erreproduzitzen den, beti pertsona batena izango da", ez du zentzurik. Beharbada, irudiei edo objektuei buruz ari bagina konplexuagoa litzateke kontua. Objektuak gorde ditzakezu, ez erakutsi... Baina soinuekin? Zentzu guztia galtzen du. Egile eskubideak modu erradikalean onartzeak musika erailtzea esan nahi du. Tikitatik kopiatuz ikasten dugu. Jaio bezain laster gure gurasoak imitatzen hasten gara, eta erreproduzio horretan lortzen dugu garena izatea. Kopiatuz lortzen ditugu berezitasunak ere, baina berezitasun horiek ez dute zertan norberarenak izan, posible da topatzea beste pertsona bat esperientzia diferenteetatik berezitasun berberetara iritsi dena. Osasungarriagoa iruditzen zait kopia modu positiboan onartzea. Egile eskubideek kopia txartzat hartzera garamatzate. Uler dezaket ekonomiaren aldetik horrek zentzu bat izatea, baina ez nortasunaren aldetik —eta sorkuntza zuzenki lotua dago nortasunari— ez. Ezin dugu modu bera erabili bi gauzak neurtzeko. Horregatik, pus-kaz interesgarriagoa iruditzen zait kopia ariketa humano gisa ulertzea; ariketa ekonomiko gisa ulertu beharrean. ■

UROLA JATETXEA

FERMIN CALBETON, 20
20003 DONOSTIA
© 943 423 424 · Fax: 943 424 424
urola@restauranteurola.com
www.restauranteurola.com

